

HERPETOLOGIA

Narrastiek eta anfibioek ingurumenean gertatzen dena kontatzen dute

Ereñotzuko Akolara eraman gaituzte, izen bereko baserriaren ondora. Iñaki Sanz-Azkue eta Egoitz Alkorta

Miranda Aranzadiko herpetologoak dira –arrastaka dabil-tzan animalien ezagutza lantzen dute– eta mendian ibiltzeko modu bitxia dute; lurrrera begira, harrien eta enboreen azpian miatzen, putzuetan geldialdiak egiten... anfibio eta narrastien eskizian ibiltzen dira. Gauza txikiei begiratzearen arte patxadatsua da haiena.

Anfibioak eta narrastiak mundu mailan dauden ornodun talde mehatxatuenak izan arren, horien inguruko ezagutza mugatua da. Euskal Herria ez da salbuespena eta badira 20 urte (30 urte EAEaren kasuan) anfibioen eta narrastien inguruko lan orokorrik egin ez dela.

Hernani eta inguruetan bes-telakoa da panorama. Iñaki Sanz-Azkue eta Egoitz Alkorta bertako herpetologoaren interes pertsonaletik piztutako metxa Udalera, Ereñotzuko Auzo Udalera, Dobera Euskara Elkar-tera eta beste hainbat eragile-rengana iritsi eta badira lauz-pabost urte Ziraba proiektua martxan dela.

«Duela 11-12 urte hasi ginen Egoitz eta biok datuak biltzen. Gure bideak gurutzatu ziren eta bion artean datu base bat osatzen hasi ginen Hernani eta inguruetakoa anfibio eta narrastien inguruan», kontatu du Iñaki Sanz-Azkuek. Hartara, mendi bueltak koadernoan es-kutan hartuta egiten dituzte, ikusitakoaren ahalik eta datu gehien jasotzeko: espeziea, arra edo emea, adina, GPSaren datu koordenadak, argazkia ahal bada...

 **INGURUMENA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Harri azpitan eta putzuetan ezkututzen dira. Iheskorak dira, ikusten ez errazak eta fama txarra dute. Anfibioak eta narrastiak, baina, ingurumenean gertatzen denaren inguruko pista apartak ematen dituzte. Hernanin merezi duten tokia ematen saiatzen ari dira eta toki askotan argigarri gerta daitekeen liburu-gida kaleratu dute.

Beren bidean bidaide hartu zituzten herpetologoek Udala eta beste eragile zenbait, eta hortik sortu zen aipatutako Zi-raba, hiru norabide nagusi di-tuen proiektua. «Batetik, eza-gutu egin behar dugu zer daukagun. Bigarrenik, jendea-ri transmititu egin behar dio-gu daukaguna. Eta, hirugarren-ik, daukagunari balioa

ematen saiatu behar gara», na-barmendu dute bi herpetolo-goek.

Dibulgazioa, ikerketa, ahoz-ko ondarea, transmisioa... «gauza txiki asko biltzen di-tuen proiektua da, urtez urte indarra hartzen joan dena». Lehen urratsa, Ereñotzuko Txi-rrita herri eskolarekin batera, Zepadiko putzuak sortzea izan

Egoitz Alkorta
Miranda –zutik– eta Iñaki
Sanz-Azkue –makurtuta–
Ereñotzuko Akolan dagoen
Putzuzar putzuan. Biak
Aranzadiko herpetologoak
dira eta kaleratu berri den
liburu-gidaren egileak.
Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

zen, anfibio eta narrastientzat egokia den ingurunea egoki-tzea.

Gerora etorri zen Akolako Putzuzar iturri zaharra berres-kuratzea eta horren segidan beste bi putzu sortzea. Paraje zoragarria da. Aranzadik, Ere-ñotzuko Auzo Udalak lagun-duta, auzolana antolatu zuen putzua berreskuratu eta beste bi putzu txikiak egiteko. «Pu-tzuzarrekoa iturri naturala da, berez sortzen dena lur azpitik. Ganaduak ura edateko, arropa garbitzeko, harraska modura, etxerako ura hartzeko... Akola baserrikoek kontatzen dute nola erabiltzen zuten garai ba-tean. Putzua berreskuratzeko eta berriak sortzeko auzolana ederra izan zen. Akola baserri-koak ere gerturatu ziren eta la-gundu egin ziguten, garai ba-tean nola egiten zuten



azalduz», kontatu du Iñaki Sanz-Azkuek. Putzuak sortze-ko lanen inguruan hizketan segitzen dute, makurtu eta uretara adi begira, zer topatuko. «Putzuak sortzeko hemen inguruko materiala erabili genuen; egurra, lurra, harriak eta zotala. Zotala belarraren azken partea da, alfonbra modukoa, azpian lurra duena. Akolako Joxek gidatuta osatu genuen

dira. Gure ingurunean eta, oro har, ingurumenean gertatzen diren aldaketen adierazle apartak; gertatzen diren aldaketen eta kalteen inguruko pista garrantzitsuak ematen dizkigute», zehaztu dute herpetologoek. Ingurumenarentzat oso garrantzitsuak izanagatik, ez daukate izen onik herritarren artean, aspalditik datozen kondaira, mito eta

ba proiektua eta bide horretan urrats berri bat da “Hernaniko eta ingurueta-ko anfibioak eta narrastiak” liburu-gida, zorroztasun zientifikoa eta herriaren jakintza josten dituen lana.

«Ziraba proiektuaren baitan, datu mordoa jaso dugu ikerketan adarrari dagokionez. Proiektuak badu beste adar bat, ahozko ondarearena. Eta alor

Argitara emandako liburu-gidak jasotako horren guztia- ren lagin bat ematen du. Anfi- bio eta narrastien fitxa zehatzak jasotzen ditu; espe- ziearen izena, Hernanin izen- datzeko modua, izena euskara batuan, luzera, toxikotasuna, nolakoa den, non bizi den, Hernani eta inguruko mapan non kokatzen den, habitata, bi- zimodua, kontserbazio egoera,

rra. «Batuetan informazio zu- zena daukate, eta, beste ba- tuetan, uste okerrak».

Gidan jasotzen denez, «sesi- yuak ere izaten ziran zapuaren kontura. Batek zapua akatu eta makila sartzen zielako eta bestiak bizik uzteko esaten zu- lako: ‘hoik xomorruak jaten omen dixkitek!’».

Kondairak eta ipuinak, bai- na, transmisiorako tresna dira.

{ «Hernaniko eta ingurueta-ko anfibioak eta narrastiak» liburutik jaso }



APO ARRUNTA / BUFO SPINOSUS

Apo sendo eta baldarra. Europako apoen artean, handiena. Ibaira, putzura edo erreka gerturatzen da ugaltzera, multzoan. Askotan errepidean zanpatua agertzen da.



ARRABIO ARRUNTA / SALAMANDRA SALAMANDRA

Anfibio handi eta sendoa da. Animalia arriskutsuaren fama du belaunaldiz belaunaldi pasatako kondairak direla medio. Toxiko narritagarria da, toxikotasun maila oso baxukoa.



TXANTXIKU ARRUNTA / ALYTES OBSTETRICANS

Tamaina txikiko apoa da. Emeak arrautzak erruten dituen heinean, arrak atzeko hanken artean kiribiltzen ditu. Arrautzak garatuta daudenean, uretan askatzen ditu arrak.

puzlea: harria, zotala, harria, zotala... tartean baita gobarría ere, gobara egiteko harria», azaldu du prozesua Alkortak.

Baina, zertarako putzuak berreskuratu eta berriak sortu? Anfibioentzat eta narrastien- tzat egokia den ingurua sortzeko. «Anfibioak eta narra- stiak bioadierazle bikainak

ipuinak tarteko. «Mito eta le- genda askoren biktima izan dira. Munduan suge pozoitsu asko egoteak ez du batere la- gundu izan, eta narrastiekiko eta sugeekiko jendearen erre- akzioa txarra izaten da norma- lean», nabarmendu dute.

Hain justu, horri guztiari buelta emateko sortu zen Zira-

horretan ere ordu askotako bilketa lana egin dugu baserriz baserri Eñaut Agirre filologoak eta biok. Narrastien eta anfi- bioen argazkiak erakutsi diz- kiegu baserritarrei eta kontatu digutena jaso dugu, Eñautek filologoaren begi-belarriez eta, nik, biologoaren begi-bela- rriez», esan du Sanz-Azkuek.

zer jaten duen, gizakiarekin harremanak eta arriskua, her- naniarrek kontatzen dituzten pasadizoak edo kondairak... eta baita QR-ak ere, bideo oso interesgarrien lotura.

Hain justu, baserritarrek kontatutako istorioetan garbi sumatzen da narrastiek eta anfibioek daukaten izen txa-

Jasotako kondaira baten arabe- ra, basomutil kuadrilla bat ba- sora joan zen lanera, sukalda- ria hartuta. Hala joaten omen ziren eta haiek lanean zeuden bitartean, sukaldariak jatekoa prestatzen zien. Errekatik har- tu omen zuen ura sukaldariak eltzean, gero babak egiteko. Kontatzen da arrabioren bat

HERNANIKO MUSKER BERDEA LONDRESKO MUSEOAN

hartu zuela eltzean, haiek kendu eta babak bertan egin zituela. Baina berak jan ez. Kondairak dio basomutil guztiak hil zirela, sukaldaria izan ezik. Horregatik esaten da arrabioak pozoia duela.

Egoitz Alkortaren hitzetan, «zenbateraino dauka pozoia arrabioak? Tira, narritagarria da, pozoia dauka defentsa mekanismo bat bezala. Kondairek

ez’. *Eta zirabak berriz: ‘Nik, ikusten dedan guziyai’. Hargatik, Jainkuak itsua egin omen zun».*

Kondairak, baina, ez dauka zorroztasun zientifikorik, zirauna ez baita itsua.

Beldurrak eta kondairak aparte utzita, herpetologoen garbi daukate zer egin behar den anfibio edo narrasti bat ikustean. «Gozatu, begiratu,

ikusitakoa, zer eguraldi egiten duen apuntatu...».

Udaberria da herpetofauna behatzeko sasoi onena eta gidan bertan jasotzen dira horren inguruko pistak eta ibilbideak. Gidaren azken kapitulua ere berezia da, “Zer esan ume bati anfibioen eta narrastien mundua hobeto ezagutu dezan?”. Gurasoentzat eta hezitzaileentzat oso baliagarria.

Hernanik lotura berezia dauka herpetologiarekin. 1913an, Edouard Britten izeneko gazte britainiar bat Hernanitik pasa zen eta bertan musker berde bat harrapatu zuen. Animalia horiekiko zaletasuna zuenez, British Museum of Natural History famatura bidali zuen. Europako herpetologiaren aitatzat hartzen den George Albert Boulenger ezagunaren eskuetara iritsi zen Hernaniko musker berdea eta historian egin den muskerrei buruzko lanik hoberenaren protagonista bilakatu zen. Britten gazteak Hernanin harrapatutako musker berdea espeziearen aurreneko eredutzat hartzen da eta Boulengerrek maiz aipatzen du Hernani bere lanean.




MUSKER BERDEA /
LACERTA BILINEATA

Duela 100 urte Boulenger zientzialari ezagunak muskerrei buruz mundu mailako lan sakona egin zuen. Horretarako, Hernaniko musker berde bat hartu zuen eredu.



ZIRAUNA / ANGUIS FRAGILIS

Hankarik gabeko narrastia den arren, ez da sugea. Muskerren taldeko espeziea da, eboluzioaren ondorioz hankak galdutakoa. Hernanin «ziraba» esaten diote, hortik Ziraba proiektua.



SUGEGORRI KANTAUARIARRA / VIPERA SEOANEI

Pozoitsua da. Mehatxatua sentitzean, ihes egiten saiatzen da. Hozka eginez gero, ospitalera joanda ez da arriskurik. «Subegorriya isatsian jota baño gaixtoagua haiz», esaten da Hernanin.

batzuetan lotura daukate errealitatearekin, eta, beste batzuetan, ez».

Ziraunaren kasua ere argigarria da. Hernaniarrei entzuna da ondokoa: «*Itsua dala esateute. Jainkuak subiai galdetu omen ziyon: ‘hik zeini egingo diok kozka?’.* Subiak erantzun: *‘Kalteik egiten ez badit, inorri*

behatu. Distantzia txiki batera egon, ikusi zer egiten duen, nola mugitzen den... Gauza txiki horiekin gozatzen ikas-tea da natura maitatzeko eta errespetatzeko bide onena. Nik gomendatzen dut koaderno bat eramateko eta ahalik eta datu gehien apuntatzeko. Haurrek marraztu dezakete

Narrastien eta anfibioen al-deko aldarri bat da Ziraba proiektua, eta, azkena argitara emandako gida, horiek ondo ezagutu eta baita errespetatzeko eta babesteko bide zuzena. Harri azpitan eta putzu ertzean ezkutatzen den bizitza txiki zatiek osatzen baitute handia. Herpetologoen gain,

nabarmentzekoa da Mikel Ramirez de Alda Zabala maketatzailleak eta Ainara Azpiazu Axi ilustratzaileak egindako lana. «Gidak hutsune bat bete behar zuen. Ez genuen gida zientifiko soila izatea nahi, informazio zientifiko zorrotza modu samurrean eman nahi genuen. Horretan lan handia

egin dute maketatzaileak eta ilustratzaileak. Eta horrelako euskarazko gidarik, guk behintzat, ez dugu ezagutzen».

Liburua Hernanin dago kokatuta, baina baliagarria izan daiteke Bizkaian, Gipuzkoan edota Lapurdin ere, isurialde atlantikoan dauden espezi ia guztiak agertzen baitira gidan.